



3 UDALA
2.400 kontsulta tramitatu ditu KIUBek 2014an

Joan den urtean egindako lanaren balantzea egin eta aurkeztu du Lasarte-Oriako KIUB Kontsumitzaleen Informazioarako Bulegoak. Guztira 2.400 kontsulta tramitatu zituen eta 601 erreklamazio jaso. Telefonia eta energia operatzaileen ingurukoak izan ziren kexa gehienak joan den urtean. Era berean, bederati ikastaro egin ziren guztira 2014an, eta 153 pertsonak hartu zuten parte horietan.

5 ELKARRIZKETA
Jordania zeharkatu du bizikletaz Sonia Rodriguez herritarrak

"Azken unean" hala erabakita, beste hiru lagunekin batera joan zen Jordania bizikletaz zeharkatzera Sonia Rodriguez herritarra. Hogei egun igaro zituen han, uneotan gatazka askoren gune den Ekialde Hurbilean. Siriarekin muga egiten duen herrialdean bizitakoei buruz hitz egin du luze eta zabal: basamortuaren gogortasuna eta isiltasuna, temperatura oso altuak, janaria, paisaje eta toki bereziak, momentu gogorrenak... Hogei eguneko egonaldia Jordanian.



Ikastaro ugari emakume zentroan
Doako eta ordaineko 22 ikastaro eskainiko dituzte, ekainera bitartean



Lizarraga, Oronoz, Salsamendi eta Azpitarte, asteazken eguerdian emakume zentroan eskaini zuten prentsurrekoan.

Doako eta ordaintzeko 22 ikastaroko eskaintza prestatu du emakume zentroak, otsailean hasi eta ekainera arte. Aurre-inskripzioa otsailaren 2, 3 eta 4ean egin beharko dute interesa dutenek, Emakume Zentroan bertan, 9:00etatik 13:00era eta 15:30etatik 19:00etara. Handik astebetara berretsi beharko da izen-ematea, toki eta ordu berean, otsailaren 9, 10 eta 11n.

Sexuen arteko bizikidetzarako erreferentziatzeko zerbitzua izatearen bidean lanean jarraitzen du Lasarte-Oriako emakume zentroak. Horretarako, hainbat ekintza osatutako egitaraua prestatu dute datorren lauhilekorako, "adin desberdinetako herritarrei zuzenduta ikasteko, parte hartzeko eta elkartzeko toki" izaten jarraitzeko asmoz.

Prentsaurrekoa eman zuten asteazkenean emakume zentroko eta Lasarte-Oriako Udaleko zenbait ordezkariak, zentroan bertan. Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuak saileko arduradunak eta Maria

Salsamendi eta Joana Azpitarte emakume zentroko teknikariak azaldu zituzten ikastaro berriei buruzko xehetasunak.

Iraupen desberdinak

Azpitartek azaldu zuen "ikastaro luzeak eta motzak" prestatu dituztela datorren lauhilekorako. Guztira 22 izango dira, 13 luze eta 9 motz. Ikastaro motz guztiak doakoak izango dira. Luzeak, berriz, ordaintzekoak izango dira batzuk (7) eta doakoak besteak (6). Otsailaren 16 eta ekainaren 26 bitartean egingo dira ekintza horiek guztiak.

Ikastaro motzen artean, honakoak aurki ditzakete

herritarrek: 'Menopausia modu positiboan nola bizi', 'Berdintasuna sustatu emakume eta gizonen artean', 'Ezetz da ezetz, gureak kaleak eta gauak' eta 'Sexualitate kontuak nola landu nerabeekin', besteak beste.

'Emakumeen artean elkarrizketa esparruak', 'Yoga', 'Jantzi konponketak eta patroiak', 'Euskararen txokoa' eta 'Bio-dantza' bezalako ikastaro luzeak eskainiko ditu emakume zentroak, ekainera bitartean.

Orain arte aipatutako ikastaroez gain, beste bi ekintza ere eskainiko ditu emakume zentroak KZgunekoekin lankidetzan: oinarrizko internet-a eta 'Google Aps' erabiltzeko kurtsoak.

Kirol-ikastaro berririk ez da egongo datorren lauhilekoan, irailean aurkeztu ziren ekintzak "urte osokoak" direlako, Gorka Lizarragak esan zuenez. "Irailean hasi ziren

kurtsoek aurrera jarraitzen dute, urte osokoak baitira", nabarmendu zuen.

Berdintasun diagnostikoa

Ikastaroez gain, beste hainbat ekintzatan buru-belarri daude murgilduta emakume zentroa eta Gizarte Zerbitzuak saila.

Lasarte-Oriako Udaleko I. Berdintasun plana burutzen, esaterako. Horretarako, herriko emakume eta gizonen errealitatea ezagutzeko diagnostikoa ari dira egiten, eta biltzen ari diren datuei herritarren iritzia txertatu nahi diete, Gorka Lizarraga zinegotziak azaldu zuenez.

Xede horrekin pare bat bilera antolatu dituzte: otsailaren 24an 18:30ean eta 25ean 11:00etan, Villa Mirentxun. "Bi saio antolatu ditugu ordutegi desberdinetan, ahalik eta herritar gehienengana iristeko", nabarmendu zuen Lizarragak asteazken eguerdiko prentsurrekoan.

OTEGI
SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA
3 In (larunbata honetan) irekitzen dugu, TXOTX GARAIA!
Zabaleta auzoa ■ LASARTE-ORIA ■ Tel.: 943 365029

Gle-apaindegi misto
Lucia
Kale Nagusia 67
Lasarte-Oria
Tel.: 688 851750
Berriz ere zuekin nago!!

Neure kabuz



Gorka Alvarez
Kirol-Herria

Gure herria gaztea bada ere, Lasarte-Oria, hainbat alorrean bezala kirol munduan ere, izaera propioaren bidea egiten ari da. Aspalditik izan da Lasarte kirolari loturiko herria. Hasi auto lasterketetatik, zaldi lasterketen tradizio sakonarekin jarraitu eta gaur egungo kirol aniztasunera iritsi arte.

Kirol desberdinen praktika, areagotu egin da ezinbestean herrian eta jada asko dira sorturiko elkarte edo klubak. Kirolarekiko afizioa handia da eta hori oso garbi ikus dezakegu, klub desberdinetan dauden fitxa federatuen kopuruei so eginda edo egunerokotasunean gure herrian kirol guneetan eta kaleetan kirola egiten dabilen jendea erreparatuz. Lasarte-Oria kirolzaleak ordea, badu ene iritziz arazo bat. Azpiegituren alorrean, herria hankamotz geratzen ari da. Herriaren sorreran eraikitako kirol gune batzuk zaharkituak geratzen ari dira eta herrian sortzen diren kirol berrientzat ere, ez dago nahikoa gune. Aipatzekoa da gure kiroldegi zaharraren instalazioek behar dituzten hobekuntzak hainbat alorrean.

Bestalde, indartsu datozen kirol berriek ere, euren lekua eskatzen dute eta azken urteotan ahalegin berezia egin den arren, oraindik, kirol hauentzako guneak eskas geratzen dira. Leku falta honek dakartzan arazoak hainbat dira. Guneen erreserbarako sistemen aurrean eztabaidak, okupazioaren denbora mugak ez errespetatzea, kirol guneen egokitasun faltaren aldarriak etab.

Ilusioa da kirolari asko eta asko mugitzen dituen indarra eta azken urteotan udala egiten ari den ahalegin eta aldaketak, bidearen hasiera izango direnaren esperantza dugu eta bide honi jarraituz, gure kirolherrian kirolariak euren leku duinak izango dituztelakoan, jarrai dezagun kirolaz eta herriaz gozaten.

Zorion agurrak



Karla eta June

Zorionak "guapiximak"! Oso ondo pasa zuen festetan. Muxu goxo-goxoak etxeko printzesentzat familiaren partetik.




Nerea

10 muxu haundi gurasoen, aiton amonen eta osaba izeben partetik. Zorionak!



Cristina

Zorionak ama! Johana, Saioa eta familiaren partetik. Marrubizko muxu handi bat.




Liher

ZORIONAK!! Ondo ondo pasa. 7 muxu erraldoi familiar partetik. Muuuuuuuua...




Olaia

Zorionak! Hamar urte, hamar muxu, hamar besarkada familiar partetik.



Oier

Zorionak polita!!!! Primeran pasa zure urtebetetzeari. 5 muxu potolo familiar partetik. Maite zaitugu!!



Jon

Zorionak txapeldun!!! Zortzi muxu erraldoi etxeko partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Etxea alokatzen da erdigunean, Okendo plaza eta Kale Nagusia ematen du eta berritua dago. Apiriletik aurrera. Saioa 656 75 32 28
- Garaje marra bat alokatzen da Loidibarrenen 10 m2ko trasteroarekin. 100 euro. 677 86 36 42
- Garaje plaza irekia alokatzen dut. Juan XXIII plazan 627 64 94 26

Salerosketak

- Estreintatu gabeko ASPES markako bitrozeramika eta labea ditut salgai, 275 eurotan. sukaldeasalgai@hotmail.com.
- Honda Accord markako auto bat saltzen dut. 5 ate ditu, gasolina, aire girotua ere badu. 63.000 kilometro, egoera onean. Prezioa: 900 euro. 696 50 67 39.

Lan-eskaria

- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintze-

ko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan ezik). Azucena. 669 93 10 26.

- Adinduak, umeak edota garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edota interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 662 27 71 36
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48
- Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketara lanetarako edota haur eta umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 611 30 94 62.
- Etxeko lanak egiteko esperientziadun emakume bat eskaintzen da, etxean sor daitekeen edozein zereginetarako. Curriculum-a eta informazioa emateko prest. 648 63 00 16.
- Sare sozialetan kudeatzaile tituluduna naiz. Prest nago zure enpresa edo denda kudeatzen laguntzeko. 605 70 85 15.
- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka garbiketara lanak edota helduen zaintzarako etxean zein ospitalean. Haur zaintzan ere esperientzia duna. 615 75 56 91.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Desire Dos Anjos De Los Santos urtarilaren 22an.
- Markel Alkorta Otxoteko urtarilaren 21ean.
- Jose Aaron Rizo Nolazco urtarilaren 19an.



Heriotzak

- Isidro Sagasti Garcia urtarilaren 29an, 86 urte zituela.
- Antonio Blazquez Castro urtarilaren 23an, 83 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 30 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 31 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 01 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 02 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 03 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 04 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 05 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALA

2.400 kontsulta 2014an

Joan den urteko jardunaren balantzea aurkeztu du KIUBek

2.400 kontsulta eta 601 erreklamazio 2014an. Horiek dira KIUB Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoak egindako balantzearen datu batzuk. Telefonia eta energia operatzaileen inguruan egin dira kontsulta eta erreklamazio gehien, kontsumitzaileen bulegoak aipatu duenez. Era berean, bederatzi ikastaro egin ziren iaz; horietan 153 pertsonak hartu zuten parte.



Anbulategi berriko hirugarren solairuan dago kokatua Lasarte-Oriako KIUB.

TXINTXARRI

Joan den urteko jardunaren balantzea egin du Lasarte-Oriako KIUBek. Iaz 2.400 kontsulta tramitatu zituzten, eta 601 erreklamazio jaso. Kontsulta eta erreklamazio horietatik gehienak telefonia eta energia operatzaileei buruzkoak izan dira.

Bestalde, iragan urtean bederatzi ikastaro eskaini zituen guztira KIUBek. Horietan 153 pertsonak hartu zuten parte. Elikagaien manipulaziorako kalifikazioa jaso zuten kurso horietan parte hartu zutenek.

Anbulategiko hirugarren solairuan dago kokatua

KIUB, eta urte osoan zehar egiten du lan "erabiltzaile eta kontsumitzaileentzako informazio eta orientazio zerbitzuak eskainiz" eta haien "eskubideak babestuz". Astelehenetik ostiralera irekitzen dute bulego hori, 9:00etatik 13:00era.

Kexak eta kontsultak

KIUBek balantzean aditzaera eman duenez, "telefonia eta energia operatzaileenak" dira gehien kontsultatu eta erreklamatu diren gaiak.

Era berean, erreklamazio berriak ere egon dira zenbait arlotan. Banketxeen jardunari buruz egindako kexetan, esaterako: inbertsio eta maileguei buruzkoak.

Zenbait arlotan 2013an baino kexa gehiago erregistratu ziren joan den urtean. Garantien alorrari buruzko erreklamazio gehiago egin dituzte kontsumitzaileek, "garantietan adostutako baldintzak" bete ez direnean.

Bulegoko arreta

KIUBek informazioa ematen die herritarrei, kontsumitzaile gisa dituzten eskubideen inguruan. Horiek egiten dituzten kexak, salaketak eta erreklamazioak ere jasotzen ditu kontsumitzaileen bulegoak.


Bi aldeen arteko bitartekotza ere egiten du, "akordio batera iristeko" asmoz, eta formakuntza ekintzak sustatzen dituzte.

67 saltoki Tratu On Bat webgune berrian

Hilabete bat pasa da Lasarte-Oriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biltzen dituen eskaintzen webgunea martxan jarri zenez eta momentuz udalerriko 67 establezimendu daude erakusleho berrian udalak jakitera eman duenez.

Zehazki, 36 merkataria, 15 ostalari eta zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituzten beste 16 establezimendu daude webgunean momentu honetan.

Erabilera datuei dagokionean, azken hilabeteetan, webgune berriak 1.190 bisita jaso ditu eta batzuetan beste bisitari bakoitzak 5 eskaintza ikusi ditu. Udalaren ustetan "datuak positiboak dira hasi berria den webgune batentzat, kontuan hartuta komertzio asko eta asko oraintxe hasi direla eskaintzak sartzen".



Sare sozialetan ere daude eskaintzak.

"Herritarrak sare sozialen bitartez pixkanaka ari dira ezagutzen webgunea eta bere aukerak eta azken hilabetean jarraitzaileak gehituz joan dira facebook eta twitterreko kontuetan". Udalak eskaintzak ezagutzera animatu nahi ditu herritar guztiak <http://eskaintzak.lasarte-oria.eus> webgunean.

Festak antolatzekeo prozesua martxan

Udaleko Gazteria eta Festak sailak martxan jarri du Jaietan Blai! prozesua. Aurten goan, San Pedro Jaiak ekainaren 26, 27, 28 eta 29an ospatuko dira eta datozen egunetan herritarrek euren ekarpenak egiteko eskuorriak jasoko dituzte etxean.

Datozen San Pedro festak antolatzekeo prozesua hasi dela iragarri du udalak. Lehenik eta behin herritarrei haien ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera eman nahi izan zaie eta horretarako etxe guztietara, proposamenak egiteko eskuorria banatuko da egun hauetan.

Bertan, herritarrek festetarako izan ditzaketen proposamenak idatzi ahaliko dituzte, eta edozein udal eraikinetan kokatuta dauden parte hartze postontzietan utzi. Proposamenak egiteko epea otsailaren 15era bitarte izango da.

KULTURA

Jostailu hezkideen tailerra

Abenduan atera zen argitara jostailu hezkideen dekalogoak, herriko hainbat emakumek irailtik egindako lanaren fruitu gisa. Irailean hasi ziren lanean, 'Jostailu hezkidetzalea ez sexista, ezta belikoa ere' izeneko tailerrean. Dekalogoaren helburu nagusia jostailuak erosterako orduan "familia osoari aholkuak eskaintzea" da. Gabonetako festak igaro dira, eta tarte horretan umeei hainbat jostailu jaso dituzte. Horien ezaugarriak aztertzekeo tailerra antolatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Emakumeen Zentroak otsailaren 2an, Lasarte-Oriako sexuen elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan 17:45etik 19:15era. Antolatzaileek otsailaren 2an egingo den tailerrari buruzko argibide batzuk eman dituzte. Zehaztu dute "komenigarria" dela alde aurretik tailerrean izena ematea. Era berean, haurtzaindegi zerbitzua egongo dela aurreratu dute, baina argitu dute alde aurretik izena eman behar dela. Izena eman edo informazio gehiago eskuratzeko 943 37 14 48 telefonora hots egin, aisia@ttakun.com helbidera idatzi edo Ttakunen bulegotik bertatik pasa daitezke.

BILERA

Biyak Bateko bilera bihar

Bilera orokorra egingo dute bihar Biyak Bateko bazkideek. Honakoa 17:30etarako deitu dute eta bigarren konbokatoria 18:00etan egin dute. Honetan parte hartzera deitzen dituzte erretiratuen egoitzako bazkideak.

IKASTAROA

Egur tailan trebatzekeo aukera

Manuel Lekuona kultur-etxean egur taila tailerra egin ahal izango da otsailtik abendura bitartean. Guztira 78 orduko ikastaroa da eta asteazkenetan izango da. Herrian erroldatutakoentzat 129 euroko kostua izango du matrikulak eta 214,80 euro ez erroldatuentzat. Kultur-etxean bertan eman behar da izena eta taldea osatu arte zabalik izango da honetan parte hartzekeo aukera.

TELEBISTA

Dinbi Banda 'Gu ta Gutarrak' saioan

Gaur ETB1n emititzen den 'Gu ta Gutarrak' saioan herriko Dinbi Banda batukada taldea izango da lehiakideei bisita egiten. Jai giroa eramateaz gain, 3. Batukada topaketaz ere hitz egingo du herriko taldeak. Saioa 21:00etatik aurrera ikusi ahal izango da.



Etxean jasotzen den eskuorria parte hartze postontzietan utzi beharko da.

Eskuorriaz gain, udalaren sare sozialen bidez ere proposamenak helaraztekeo aukera dagoela azpimarratu dute. Horretarako, Facebook orrian edota #SPJ15 traola (Twitter) erabili ahaliko dira. Nahi izanez gero udala@lasarte-oria.org helbidera ere bidal daitezke ekarpenak.

Proposamen guztiak jasota, otsailaren amaieran Festetako Mahaiaren lehenengo bilera egingo dela aurreratu

dute udaletik. Bilera hau irekia izango da, nahi duen orok parte hartu dezan, baina batik batik festetan ekintzak antolatzen dituzten elkarteetako ordezkarietara zuzenduko zaie. Bertan, proposamenak kudeatuko dira eta elkarteek zein ekintza burutuko dituzten zehaztuko da programa osatzen hasteko.

Udaletik herritarrak animatu nahi dituzte prozesu honetan parte hartzera.

Buruntzaldean iaz 140 lagunek atera zuten gidabaimena euskaraz

Lasarte-Orian 21 izan ziren euskaraz atal teorikoa egiteratzera animatu zirenak

Asteazkenean Hernanin burutu zen 2014an gidabaimena euskaraz atera dutenen artean egin ohi den sari banaketa. Honakoa gidatu zuten Boris Nogales Lasarte-Oriako euskara batzorde buruak eta Luix Intxauspe Hernaniko alkate eta euskara buruak. Herrian Mugica, Lasarte eta Izarra autoeskolatan atera daiteke gidabaimena euskaraz eta horrenbestez, hiru sari banatu ziren. Gurean 400 euro jasoko dituzte Alex Altunak, Xabier Mitxelenak eta Asier Balerdik.

TXINTXARRI

2014an gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera zuten artean, formazioa eta azterketa, 400 euroko 11 sari zozketatu ziren asteazkenean Hernanin egindako ekitaldian. Herri bakoitzean dauden autoeskola kopuru adina sari herriko.

Sariak herri bakoitzean banatu direnez, autoeskola bakoitzean ibilitako ikasleen txartelak dagokion herriko kutxatan sartu dira. Ekimen honen antolatzaileak Buruntzaldeko udaletako euskara zerbitzuak dira.

Boris Nogalesek aipatu bezala, Buruntzaldeko 10 auto eskola daude egitasmoaren baitan, Andoaingo Bengoetxea eta Mendi autoeskolak, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi

autoeskolak, Lasarte-Oriako Izarra, Lasarte eta Mugica autoeskolak eta Urnieta eta Usurbilgo Solozabal autoeskolak.

Luix Intxauspek azpimarratu zuen dagoeneko bost urte direla egitasmo hau aurrera eramaten dela eta urtetik urtera partaide kopurua igo egin dela. "Egitasmoaren arrakasta garrantzitsua da batez ere gazte jendeari zuzendutakoa delako. Euskaraz motibagarriak diren ekintzak inportanteak dira hizkuntza ohituretan eragiteko garaian".

Hernaniko alkateak aipatu zuenez, 2010. urtean 34 ikaslek atera zuten gidabaimena euskaraz, 2011.ean 60k, 2012an 112k, 2013an 135k eta 2014ean 140k.

"Asmoa da atal praktikoa ere euskaraz eskaini ahal iza-



Hernaniko Biteri kultur-etxean egin zen asteazkenean zozketa eta bertan udaletako eta autoeskoletako ordezkariak izan ziren.

tea eta horretarako eskualdeko mugak gainditu eta Gipuzkoa mailako beste eragile eta udalekin lanean ari gara hau lortzeko. Izan ere, gure eskualdean bezala, beste batzuetan gaiaren gainean ari ziren lanean".

Herrian 21

Lasarte-Orian 21 lagunek

atera dute gidabaimena euskaraz eta 3 sarituak Alex Altuna Egitegi, Xabier Mitxelena Lopetegi eta Axier Balerdi Erauntzetamurgil gazteak izan dira. Hirurak, Mugica autoeskolatan atera dute gidabaimena.

Sarituek astean zehar herri bakoitzean diren ekitaldietan jasoko dute 400

euroko saria. Luix Intxauspek jakinarazi duenez, Buruntzaldeko udalek egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dute eta 2015eko maiatzean ekingo diote zabalkunde kanpainari.

Udalen aldetik balorazioa oso ona dela aipatu du ere Intxauspek eta pozik azaldu ziren urtetik urtera jasotako emaitzekin.

Albaola museora txangoa

Xumela koruak eta Oinatzek leheneko aldiz irteera bat antolatu dute elkarrekin. Oinatz taldeak urteak darama-tza Ttakunen baitan helduen-tzako aisia euskaraz eskaintzeko helburuarekin txango desberdinak prestatzen.

Kasu honetan, herriko Xumela koruko kideekin bat egin dute eta otsailaren 28an Albaola museora joango dira. Hala ere, ekintza irekia da eta ohi bezala Ttakunen izena eman ahal izango dute honetan parte hartu nahi duten herritarrek.

San Juan baleontzia

Otsailaren 28an Pasai San Pedron dagoen Albaola museora irteera antolatu dute Oinatz eta Xumelako kideek.

Honetan San Juan baleontziaren erreplikaren eraikuntza ikusi ahal izango dute bertatik bertara. San Juan baleontzia, Euskal Herritik Ternuara joaten ziren zama-ontzi transozeanikoen adibide bat da. Euskal ontzigintza industriaren

ikur hau Kanadako Ipar Atlantiar kostaldean, Red Bay-n, hondoratu zen 1565ean. 1978. urtean hasi ziren indusketa lanak eta 30 urte igarota, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren baitan eta Kanadako Gobernuaren laguntzarekin, berriz eraikitzen ari dira baleontzia Pasaietan.

Oinez edo autobusez

Irteera egiteko bi aukera izango dira. Batzuk 8:45ean abiatuko dira Jalgi paretik, Uli mendira autobusez eta handik ibilbidea oinez egingo dute Pasaiaraino. Paseo ederra dela diote Oinatzekoek eta bi ordu inguruko iraupena izango du. Horrela, 11:30ean bisita gidatua egingo dute Albaolara oinez bertara iristen diren lagunek.

Bigarren aukera berriz, autobusez zuzenean Pasaiara joatea da. Horrela nahiago dutenek, hitzordua 10:00etan izango dute Jalgi parean autobusa hartzeko. 10:30ean bisita gidatua egingo du talde honek museora. Bisita 70 minutukoa



Oinatzeko kideak Xumelako antsegu batera joan ziren irteeraren inguruko azalpenak ematera.

izango da. Ostean nahi dutenek etxera bueltatzeko aukera izango dute eta gainontzekoek, Pasai Donibanera pasa eta bertan bazkalduko dute.

Xumelakoek kantuekin girotuko dute jatetxerainoko ibilbidea. Aipatu behar da Zarautzetik Montetxio abesba-

tzako kideak joango direla Albaolara eta Kantujira egin eta bazkaltzeko herriko taldearekin elkartuko direla.

Autobusak Lasarte-Oriara bueltan 13:30ean eta 17:30ean egingo ditu bidaiak. Menuak 15euroko kostua izango du, autobusak 5euro eta museorako

sarrerak ere 5 euro balio ditu. Oinatz taldeak martxoaren 29rako Trebiñu aldera irteera antolatu du eta maiatzaren 31ean Gaztelugatxe eta Bakiora egingo du ibilaldia.

Irteera guztiak irekiak dira eta Ttakunen eman beharko da aurrez izena.

Sonia Rodriguez Bidaiaria

"Jordaniako basamortuen isiltasunak erakarri nau gehien"

Jalgin diaporama saioa eskainiko du Sonia Rodriguezek asteazkenean, 21:30etik aurrera

Hogei egun egin zituen urrian Sonia Rodriguez herritarrak Jordania, Ekialde Hurbilean. Erreterriko beste hiru lagunekin batera joan zen, "azken unean" hala erabakita. Bere bidaideek eskaladako aldizkari batean herrialdeari eta eskaladari buruzko erreferentzia batzuk irakurtzean sortu zitzairen Jordania bizikletaz zeharkatzeko ideia. Ofizios irakaslea da Rodriguez. Afizios bidaiaria. Aurrez Hegoameriketako Perun, Bolivian, Argentinan, Txilen eta Uruguaian egona da bizikletarekin; Ertamerikako herrialdeetan eta Kuban ere bai; Indian, Korsikan, Italian, Frantzia, Espainian... Non ez ote da izan abenturazale lasarteoriatarra.

Jon ALTUNA EGITEGI

Ez zuten leku xamurrera bidaiatu urriaren 1a eta 20aren artean Sonia Rodriguez eta bere lagunak. Gatazka gunea da Ekialde Hurbila. Garai hartan Israel Gaza bonbardatzen ari zen eta Estatu Islamikoak Europari mehatxua luzatua zion.

Bidaiatzeko grina leheneztita, Jordaniara joatea erabaki zuten, Siriarekin muga egiten duen herrialdera: "Guk ez dugu arazorik edo gerra girorik somatu, ez ginen iparraldera, Siriako mugara gehiegi hurbildu, hegoaldera jo genuen", adierazi du Sonia Rodriguezek.

Presentzia polizial eta militarrik handiena Amman hiriburutik 20 kilometrora dagoen Madabako aireportuan nabaritu zuten, baina behin basamortura sartuta, deus ere ez: "Nazioarteko telebistetan arazoa gehiago ikusten da bertan egonda baino, gainera basamortuaren erdian ez geneukan irrati edo telebistarik", esan du barrez.

Izan ere, Euskal Herritik bertara eramandako lau bizikleta, bi kanpin denda eta gainontzeko ekipaia guztia hartuta basamortua zeharkatzea ez da xamurra. Eta Sonia Rodriguezek bere azalean

pairatu zuen desertuaren gogortasuna: "Hasierako asmoa bizikleta eta eskalada uztartzea zen arren, ez nuen eskalaterik izan. Hondarretan bizikletarekin ibiltzea oso astuna da eta denbora guztian bultzaka aritu nintzen, azkenean eskumuturra bihurritu nuen", dio penatuta herritarrak.

Basamortuko bizipenak

Lehen etapak asfaltoaren gainean egin bazituzten ere, basamortu idorrera sartzean hasi ziren komeriak.

Hasteko, beroa. Batz bestea 40 graduko tenperatura izan zutela azaldu du eta 20-100 kilometro bitarteko etapak egiteko ura gainean eraman behar izaten zutela ere gaineratu du: "Lehendik generaman pisuari gehituizkiozu bakoitzak behar dituen hiru edo lau litroak eguna igarotzeko... Bidean apenas dago herririk, ez dago iturririk eta ura erosi egin behar izaten da".

Bigarren arazoa: Jordania herrialde musulmana denez, emakumeek, mendebaldarrak izanda ere, goitik behera jantzita joan behar dutela salatu du: "Pentsa, basamortua 40 gradurekin zeharkatzea gogorra da, baina mauka luzea eta galtza luzeekin zeharkatu behar izatea, gurutzebidea".



Sonia Rodriguez bidaiariak Jordaniako txokoak bisitatu ditu. Biologia ikasketak egin zituen eta irakaslea da orain.

Izan ere, Jordania herrialde monarkiko-islamiarra da. Gaur egungo Abdala II. erregearen ama ingelesa zen eta bere andrea Zisjordaniakoa da. "Lau aberats daude Jordania, gainontzekoak pobreak dira, baina kalean ez da miseriarik antzematen".

Jatekoari dagokionez, nazka-nazka eginda amaitu omen zuen eguneroko menuarekin: "Kebab-a, hummus-a eta oilaskoa jaten dute gehienbat eta arroza ere bai tarteka". Latzena egiten zitzaiena ordea, 40 gradutan pedalk eragiten ibili osten zerbeztaxo bat hartu ezin izatea zen.

Bidaia honetan Sonia Rodriguez gehien harritu duena, "basamortuko isiltasuna" oro har eta bi eremu zehatz: "Itsaso Hila benetan ikusgarria da. Bainatu ginen, eta bai, ezinezkoa da hondoratzea itsasoak duen gatz dentsitate handiagatik", dio barrez.

Lehorrean ere topatu zituzten gutxitan ikusitako paraje ederrak: "Munduko zazpi mirarietako bat da 'Petra'. Dimentsioak hain dira

"Desertua 40 gradurekin zeharkatzea gogorra da, baina erlijio kontuengatik galtza luzeekin zeharkatu behar izatea gurutzebidea da"

handiak... Gezurra dirudi duela 5.000 urte eraiki zuten! Nire buruari galdetu nion nola demontre sortu ote zituzten halako eskulturak eta galeriak mendia zizelkatuz... Garai hartako metodoak ikustekoak izango ziren".

Etorkizunerako asmoak

Handik hona ibiltzen den emakumea da Rodriguez, ez da geldirik egoteko jai. Biologia ikasketak egin zituen eta orain ordezkapenak egiten ditu irakasle postuan. Denbora libre dezente izateak on egiten dio bidaiatzeko. "Natura eta kirola uztartzen dituzten ekin-tza guztietara apuntatzen naiz. Nire pasioa da", esan du haur baten ilusioarekin.

Aurrez, futbola egin zuen Ostadarreko nesken taldean, urpekari titulua ere badauka,

surfa egitea gustatzen zaio, gaztetan atletismoa probatu zuen, patinatzen aritzen da, eta orain, martxoan, eski trabesia bat egitera doa Norvegiako fiordoetara.

Udaran berriz, Asiako Uzbekistanera joan nahiko luke 'Pamir highway' bidea bizikletaz egitera, 5.000 metroko altueran.

Bidaiari ona izateko aholku bat eskatuta, argi dauka: "Bi kulero eta bi galtzerdi soilik eramatea, bizikletan pisu gutxi eramatea ezinbestekoa baita", adierazi du txantxetan.

"Nik uste bidaiari ona izateko pertsona irekia izan behar duzula. Planifikazioa %100ean ez da existitzen eta hori asumitu egin behar da. Beti gertatzen dira ustekabeak, eta horrek ere badu xarma, jakina".



IES BHI
LASARTE • USURBIL

LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA

Aurrematrikula
DBH-rako
Otsailaren
2tik 13ra

Zure aukera



- D.B.H.
- BATXILERRA



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

LABURRAK.-

Babyauto Zarautzek Ohorezko B mailako lidergoa sendotu du Bera-Bera hirugarren sailkatuari 29-11 irabazita

Ohorezko B mailako iparraldeko lidergoa indartu egin du Babyauto Zarautz taldeak. Donostiako Bera Bera 29-11 garaitu zuen Astin asteburuan. Garaipen honekin, herritarren eta zarautzarren taldeak 70 puntu ditu sailkapen nagusian, bigarren Durango da 63 punturekin eta Bera-Bera hirugarren 50ekin.

Larunbat arratsaldeko neurketan giro paregabea izan zen zelaian eta baita harmailetan ere. Bera Berako morroskoen joari ez ezik, euri zaparrada mardulei ere eutsi behar izan zieten jokalariek eta zaletuek. Ikuslegoa aterkien babesean, eta jokalariek lokatzezko trajearekin. Kirol honen definizio grafikoa, horixe baita errugbia.

Bera-Berak hartu zuen aurrea markagailuan transformazio batekin. Babyautok ordea, melean nagusitzea lortu zuen eta baloia alde batetik bestera abiada handian mugituta, jokoaren pisua bere gain hartu zuen garaipena erdiesteko.


Liga erregularra amaitzeko sei jardunaldiren faltan, hirugarren sailkatuarekiko 20 puntuko alde du Babyautok. Hortaz, ia-ia matematikoki eskuratuta dauka Ohorezko A mailara, Espainiako Liga gorenera, igotzeko aukera emango lioketen play-offak jokatzeko txartela.

Sevillano, Ormazabal eta Altuna atletak Euskadiko klubetako txapelketan

Atletismoak berri onak ematen jarraitzen du. Klubetako Euskadiko Kopa jokatu zen joan den asteburuan Donostiako Antonio Elorza belodromoan eta hiru lasarteoriarrek hartu zuten bertan parte: Gaizka Ormazabal eta Jon Altuna Super Amara BAT taldeko atletak eta Iñigo Sevillano Realekoak.

Hirurek lortu zuten euren probetan lehen hiruren artean sartzea. Iñigo Sevillanok bigarren egin zuen 60m hesietan, 8.55eko denborarekin. Gaizka Ormazabal hirugarren izan zen 200 metroetan 22.88 eginda; eta txapelketa itxi zuen 4x200 errelebutako lasterketan ere lehiatu zuen. Bere taldea, Irungo Super Amara BAT, bigarren izan zen Atletico San Sebastianen atzetik kronoa 1:32.29an geldituta. Azkenik, Jon Altuna iraupen-erdiko atletak garaipena lortu zuen 800 metroetan, 2:03.03ko markarekin. Ailegaera estu batean, helmuga-marra gainean bertan hartu zion aurrea Ismail Razga Santurtziko atletari.

Sailkapen nagusian Iñigo Sevillanoren Real gailendu zen 87 punturekin. Ormazabal eta Altunaren Bidasoa Atletiko Taldea bigarren izan zen puntu bakar bat gutxiago eskuratuta. Podiumeko hirugarren koskara Atletico San Sebastian igo zen. Atzetik, Tolosa, Santurtzi, Portugalete, Durango eta Artunduaga sailkatu ziren Euskadiko klub onenen pista estaliko txapelketan.



ARETO-FUTBOLA.-

Ostadar Antonio Aroztegia mailari eusteko borrokan

Liga Nazionaleko hirugarren mailan jokatzeko du herriko taldeak, Aldaz HK-ak utzitako hutsunea betetz

Herriko areto-futbolak duen piramidearen punta da Ostadar Antonio Aroztegia, talderik onena. Gogor ari dira lanean Lasarte-Oriak ahalik eta liga gorenean ordezkartza izan dezan. Hamalau taldeko txapelketan, 9. doaz herritarrek eta helburua jaitziera ekiditea da.



JON ALTUNA EGITEGI

Hamabost puntu ditu Ostadar Antonio Aroztegiak estatuko hirugarren mailako ligan. Lau partidu irabazi ditu orain arte, hiru berdindu eta sei galdu.

Defentsa lanean primeran moldatzen dela erakusten dute datuek, 38 gol besterik ez baititu jaso. Ligako hiru taldek bakarrik jasotzen dituzte herritarrek baino gol gutxiago.

Hori bai, erasoan kamuts samar dabilza Lourdes Muriñoren mutilak. Denera 30 gol sartuta, gol gutxien egiten duen hirugarren taldea da Ostadar Antonio Aroztegia.

Murillo prestatzaileak eta jokalariek badakite hori, eta gaitzari erremedioa jartzen saiatzen ari dira: "Aukera asko sortzen ditugu, baina azken errematean egiten dugu huts, zorte apur bat falta zaigu. Halere, horrela jokatu ta ziur bigarren itzulian gehia-

Laskorainen aurkako derbian, Ostadarrek ezin izan zuten punturik eskuratu larunbatean.

go sartuko ditugula", adierazi du Iñigo Jaka jokalariek.

Dena den, argi dute denboraldiko helburua zein den: "Ez genuke mailari eusteko arazorik izan behar, talde batzuk desagertu egin direlako. Guk sailkapen nagusian ahalik eta goren amaitu nahi dugu", dio Jakak.

Liderraren aurkako derbia

Laskorainen kontrako porrota esperotakoa izan zen, baina lasarteoriarrek erakutsitako jarrera eta jokoa "pozik egoteko modukoak" izan ziren Jakaren hitzetan.

Tolosako taldea liderra da 32 punturekin eta Ostadarrek, saiatu arren, ezin izan zuten ezertxo ere egin larunbatean kanpotarren nagusitasunaren aurrean.

Lehen zatia oso orekatua izan zen eta atsedendira 1-1eko emaitzarekin joan

ziren, Iñaki Merinoren golari esker. Bigarren zatian ekin bezain pronto, Laskorainek sartu zuen, baina Iñigo Jakak berak 2-2koa jarri zuen markagailuan.

Ongi ari zen Ostadar, bizi. Tamalez, zelai erdian baloi bat galdu eta 2-3koa sartu zuten tolosarrek. Atezain-jokalariekin saiatu arren, ez zuten fruiturik jaso eta azkenean 2-4 eman behar izan zuten amore Ostadar Antonio Aroztegi jokalariek.

Duela hamabost egun Goierri bigarren sailkatuaren aurka jokatu zuten, joan den astean Laskorain liderra hartu zuten kiroldegian eta asteburuan Bilbo laugarren sailkatua izango dute aurkari etxetik kanpo. 'Urtarrileko malda' amaitzeaz da.

Bestalde, Ostadar Cecilia Kebab Lasartek 8-1 garaitu zuen Legorretako Gazte Piku.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 31
Michelin, 9:45ean
 Ostadar SKT - Internacional
 Kadeteak 1. maila, Kopa
 4. jardunaldia.

Michelin, 11:15ean
 Ostadar SKT - Olereta
 Jubenilen 1. maila, Igoera
 5. jardunaldia.

Michelin, 13:00etan
 Ostadar - Eibar SD
 Infantil Txikiak Errendimendua
 8. jardunaldia.

Michelin, 15:45ean
 Ostadar SKT - SANSE
 Ohorezko Jubenil Maila,
 18. jardunaldia.

Michelin, 17:30etan
 Ostadar SKT - Elgoibar
 Ohorezko Erregional Maila,
 20. jardunaldia.

Igandea 1
Michelin, 10:00etan
 Ostadar SKT - Lengokoak
 Infantilen Ohorezko Maila, Kopa,
 2. jardunaldia.

Bolue, Getxo 12:15ean
 Getxo CD - Ostadar SKT
 Kadeteen Euskal Liga,
 20. jardunaldia.

Michelin 12:45ean
 Texas Lasartearra - Amara Berri
 Jubenilen 1. maila,
 Kopa
 4. jardunaldia.

Michelin, 14:30ean
 Ostadar SKT - Allerru
 Emakumezko Erregionala, Kopa
 5. jardunaldia.

Garmendipe, Azpeitia 16:30ean
 Ilkasberri KE - Texas Lasartearra
 1. Erregionala, Kopa
 4. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 30
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
 Buenetxea - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
 Ilargi - Reformas Lagunak

Udal-kiroldegia, 20:55ean
 ISU Leihoak - Inter Kafeteria Eder
 Gipuzkoako 1. maila,
 15. jardunaldia.

Larunbata 31
Michelingo kirol-gunea, 9:15ean
 Izkiña Taberna - Bar Also

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean
 Trumoi - Txoko Taberna

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
 Indaux - Insausti Taberna

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean
 Bar El Punto - Txindoki

Karela kiroldegia, Orio, 18:00etan
 Alustiza Autobusak -
 Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte
 Gipuzkoako 3. maila,
 15. jardunaldia.

Igandea 1
San Ignacio kiroldegia, Bilbo, 11:30ean
 Bilbo Futbol Sala - Ostadar Antonio
 Aroztegia
 3. Nazionala,
 15. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 31
Unbe, Eibar 16:00etan
 Eibar - Babyauto Zarautz Beltzak
 Ohorezko B maila

Michelin 14:30ean
 Beltzak ZRT - La Única A
 Sub 14

Asti, Zarautz 10:30ean
 Beltzak ZRT B - Bera Bera
 Sub 14

Donostia 13:00etan
 Bera Bera - Beltzak ZRT
 Sub 18

Igandea 1
Mutriku 10:30ean
 Sub 10 / sub 12 Federazioko jardunaldia

Donostia 13:00etan
 Bera Bera - Beltzak ZRT
 Sub 16

Agenda

Igandea, Manuel Lekuona Kultur-etxean 19:00etan



'Invencible' filma igandean

'Invencible' Angelina Jolie aktore ezagunak zuzendutako bigarren filma ikusi ahal da helduen zinema atalean. Honetan Louis Zamperini atletaren istorioa kontatzen da. Filma 1936. urtean kokatzen da eta urte horretako olinpiar jokoetan parte hartu ostean, Zamperini ejertzitoan sartu eta gerrako pilotu bezala ari dela, japoniarrek preso hartuko dute. Filmak Oscar sarietarako hiru izendapen jaso ditu. Sarrera 5,50 euro.

Bertsolaritza

JALGI KAFE ANTZOKIA
Otsailak 6, 22:30ean

Herriko Earra! Bertso eskolak antolatuta, azken bertso desafioa izango da Jalgin. Kasu honetan Azpeiti, Errezil eta Azkoitiko Erriarraitz Bertso-eskolako kideen aurka ariko dira herrikoak. Sarrera doan.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA
Urtarrilan zehar

Ttakunek antolatuta, abenduaren 21ean Okendon egin zen Santo Tomas azokako eta Abenduaren 24ean, Olentzeroren etorrerako argazki bilduma ikusteko azken egunak.

Andoain

Hitzaldia

BASTERON

Osteguna 5, 19:00etan

"Alzheimer gaixotasuna eta beste demenziak" hitzaldia eskainiko du Asier Lasa medikuak. Sarrera doan.

Musika

BASTERON

Larunbata 7, 20:00etan

Demodé Quartet-ekoak ziur daude Countryaren, Jazzaren, Sanbaren, Bollybodaren edo Poparen jatorria Euskal Herrian bilatu behar dela. Abesti eta "EPA!" showaren bidez Benito Lertxundi, Ken 7 eta beste taldeen kanta ezagunak abestuko dituzte beraien estilo propioan. Sarrera 10euro.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 17:00etan

'Las aventuras del pequeño fantasma' filma haurren zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Otsailak 6, 22:00etan

'Birdman' filma Okendok antolatutako zine forumean. Alejandro Iñarritu zuzendariaren azken lan honek bederatzi izendapen jaso ditu Oscar sarietarako. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Otsailak 7, 20:00etan

'Birdman' filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Otsailak 8, 17:00etan

'Stand by me Doraemon' filma ikusi ahal izango da haurren zinema atalean. Emanaldia Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata, 17:00etan

Deabru Beltzak taldearen 'Opera Abeslaria' antzezlanaz gozatu ahal izango da larunbatean. August Strindberg autorearen Tabako lehortegiko sekretuak ipuinean oinarrituta, Hannah opera abeslariaren

arrakasta eta hondamendia kontatzen dira ikuskizun honetan. Sarrera 3,80 euro.

Diaporama

JALGI KAFE ANTZOKIA

Asteazkena 4, 21:30ean

Ttakunek antolatutako diaporama saioak izango dira otsaileko asteazken guztietan. Lehenengo saioan Sonia Rodriguez herritarra Jordanian zehar egindako bidaiak mintzatuko da. Bertan bizikletaz ibilbideak egin zituen eta eskalatzeko tartea ere hartu zuen. Sarrera doan da eta jateko zerbait jarriko du antolakuntzak. 40 minutuko azalpenaren ostean, bertaratuakoein solasalditako tartea izango da.

Herritarren txokoa

Lasarte-Usurbil institutuko saria
Lasarte-Usurbil B.H.I Institutuko saskiaren zozketa egin da eta zenbaki sariduna 0224 da.

Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Munterri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Sorgin Jaien bilera

Datozen San Pedroei begira, lehenengo bilera antolatu dute Sorgin Jaiko kideek. Gaur ostirala izango da,

18:30ean Xirimiri elkartearen eta gazte zein helduak daude honetara gonbidatuta. Asmoa iazko lan ildoarekin jarraitzea da.

Kilometroak 2015

Usurbilen ospatuko da aurten Kilometroak jaiak Udaregi ikastolaren alde, eta egun hori antolatzeaz gain, urtean zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte. Otsailaren 6an bertso-afaria antolatu da Saizar sagardotegian 20:30ean. Bertan Uxue Alberdi eta Jon Maia ariko dira. Sarrerak Gattunk dendan eta Txirrista tabernan erosi ahal izango dira, 26 euroren truke (20 eurotan ikasle eta langabetuentzat).

Hemeroteka

Duela 1146 ale



Sagardotegi garaia zabaldu zen duela aste batzuk. 1997ko urtarrilaren 31ko TXINTXARRI- n erreportajea egin zen ez sagardoa nolakoa zen galdeztzeko, baizik eta "sagardotegietara afaltzera doazen jarrerak eta portararak zein den jakiteko" horrela sagardogile ezberdinen iritziak jasotzen ziren. "Lehen jende heldua etortzen zen sagardotegietara. (...) Sagardotegi desberdinetatik igarotzen ziren sagardo bakoitzaren balorazioa egiteko. Egun ohitura hori badago baina gutxiagoz egiten dute. Gazteak berriz, edatera etortzen dira, ondo pasatzera". "Etorri denak txintxo etortzen dira, joan ahal duten bezala: batzuk oso ondo eta beste batzuk ez. Gazteei juerga asko gustatzen zaie; besteak serioagoak dira". "Jendea pozik ibiltzen da sagardotegietan eta gainera garaia noiz hasiko den zain egoten dira".

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu, geureak direlako

Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak elkarrekin joateko

Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez Ingelesa: atzerrira begira



Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria, informatika,... gure tresnak direla

Behar berezia duten ikasleentzako: gertuko jarraipena eta aholkulariak

Liburutegi eta mediateka zerbitzua Eskola ordutik kanpoko jarduerak

Goiz txoko zerbitzua

Jangela zerbitzua

Garraio zerbitzua



<http://www.youtube.com/watch?v=IVpZKS66q-I>
Sasoeta-Zumaburu eskolako aurkezpena

Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

BILERA EGUNA

Otsailaren 3an
17:15tan Zumaburuko egoitzan

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
Otsailaren 2tik 13ra
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274



Lasarte-Orian,
geure herrian!

